

EUSKADIKO EKONOMIAKO V. OLIMPIADA 2013ko APIRILAREN 19a

AZTERKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

- Azterketak bigarren mailako batxiergoko “Ekonomia eta Enpresen Antolaketa”ri dagozkion bost galdera ditu. Hala ere, ikasleak gehienez hauetako bi galdera ordezkatzeko aukera izango du batxiergoko lehen mailako “Ekonomia” irakasgaiko 2 galderatik
- Galdera bakoitzak 2 puntutako balioa du. Galdekizunaren ulermen gaitasuna eta erantzunetan arrazoiketa baloratuko da bereziki.
- Azterketaren iraupena ordu 2 eta 30 minututakoa da.

EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA

1.GALDERA

The All-New Kindle Family



Kindle Fire HD 8.9" 4G
\$499

Kindle Fire HD
\$199

Kindle Paperwhite
\$119

Liburu elektronikoen merkatua 2007ko azaroaren 19an jarri zen martxan, Amazon®-ek lehen Kindle®-a kaleratu zuenean, 399 \$-eko prezioan. Hasiera batean, Amazonek paper formatuko edukien argitaratzaileei jarritako prezio erdua zela eta, haiek argitalpen digitala Amazoni bakarrik saltzeko beharra ikusten zuten. Amazon

liburu elektronikoko guztien truke 9,99 \$-eko prezioa ezartzera iritsi zen, alegia, paperezko formatua baino askoz ere merkeagoa.

Alabaina, 2010eko urtarrilaren amaieran, *Apple*®-ek liburuak saltzeko zerbitzu bat jarri zuen martxan *Ipad*®-aren bidez. Ondorioz, *Kindle*-aren lidergoak behera egin zuen nabarmen. Argitaletxeek nahiago zuten *Apple*-en negozio eredu, beren txikizkako merkataritzako negozio tradizionala kopiatzen zuelako; alegia, *Apple*-ek salmentengatiko diru-sarreraren % 30 jasotzen zuten, eta argitaletxeek gainerako % 70a. Eredu horren bidez azken erabiltzailearentzat liburuak garestiagoak baziren ere, *Apple*-en aukera komertzialki erakargarriagoa zen erabiltzaile askorentzat, dagoeneko *iPad*-a erosita zutelako eta, *Amazon*-en *Kindle*-arekin alderatuta, beste aplikazio asko erabil zitzaketelako (*Kindle*-arekin liburuak irakurri besterik ezin zuten egin).

iBook-en arrakasta komertziala argi gelditu zen *Amazon*-ek bere prezioak ezartzeko ereduan atzera egin behar izan zuenean. Hala, berriz ere argitaletxeen gustuko eredura itzuli behar izan zuen, *Apple*-ek egin bezala, azken finean hori baitzen argitaletxeen industriaren funtzionamendu tradizionala. Hori dela eta, *Kindle*-en bidez saldutako argitalpen edukien prezioak igo behar izan zituen, *Amazon*-en *ebook*-aren erabiltzaile asko haserrearaziz. Gainera, *Amazon*-ek bere *Kindle ebook*-aren prezioak asko jaitsi behar izan zituen, prezioen igoera horri aurre egiteko. Horrez gain, *tablet*-ak ekoizteko eta saltzeko negozioan sartzeko ahaleginak egin behar izan zituen, bere *Kindle*-ari horien ohiko prestazioak eman ahal izateko.

Informazio horrekin zera eskatzen da: Produktuaren Bizi-Zikloaren Eredua erabiliz, *Amazon*-i Internet bidezko liburuaren salmenta-negozioan zer gertatu zaion azaltzea. Bereziki, *Kindle* aparaturoko (ez argitalpel edukietarako) Bizi-Zikloan zeharreko *Marketing-Mix*-aren *Produktu* eta *Prezio Politikak* zehaztasunez deskribatzea.



2. GALDERA

OLETAL S.A. Sozietateak bere inbertsio iraunkorrak handitu nahi ditu. Horretarako, kapital zabalkuntza bat egitea erabakitzen du akzio berriak jaulkiz. Kapital zabalkuntzaren aurretik, OLETAL S.A, Sozietatearen kapital soziala 5.000.000 eurokoa zen (500.000 akzio, 10 euroko balio nominalarekin bakoitza) eta metatutako erretserbak 1.500.000 eurokoak ziren. Jaulkipena 25.000 akziokoa da, pareko jaulkipen bat izanik. Fernando Uriarte Jaunak, kapital zabalkuntza baino lehen, OLETAL S.A. Sozietatearen akzioen %10aren titularra zen.

ZERA ESKATZEN DA:

- a) Fernandok kapital zabalkuntzan parte hartzen badu, zenbat akzio berri erosi ahal izango ditu eta zein izango da bere kostua?
- b) Fernandok kapital zabalkuntzan parte hartzen ez badu, zein izango da bere lehentasunezko harpidetza eskubideen balioa?

3. GALDERA

"SARRIKO SA"
EGOERA BALANTZEA (Euroak, Datuak: 201X-12-31)

AKTIBOIA			ONDARE GARBIA eta PASIBOIA		
	2011	2010		2011	2010
AKTIBO EZ-KORRONTEA	1.017.467	1.042.499	ONDARE GARBIA	2.096.150	2.222.052
Ibilgetu Ukiezina	18.427	32.878	<i>Fondo Propioak</i>	2.096.150	2.222.052
<i>Aplikazio informatikoak</i>	18.427	32.878	Kapital eskrituratua	763.270	763.270
Ibilgetu Materiala	747.647	793.055	Erreserbak	1.458.782	1.456.712
<i>Lurrak eta eraikuntzak</i>	682.246	703.895	<i>Lege- eta estatu-erreserbak</i>	145.310	145.103
<i>Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala</i>	65.401	89.160	<i>Bestelako erreserbak</i>	1.313.472	1.311.609
Epe Luzeko Finantza-inbertsioak	217.947	216.566	Ekitaldiko emaitza	(125.902)	2.070
<i>Ondare-tresnak</i>	215.026	215.026	Balio-aldaketen doikuntzak	0	0
<i>Bestelako aktibo finantzarioak</i>	2.921	1.540	Hartutako Diru-Laguntzak, Dohaintzak eta Legatuak	0	0
Zerga Geroratuen Aktiboak	33.446	0			
			PASIBO EZ-KORRONTEA	132.176	178.670
			Epe Luzeko Zorrak	132.176	178.670
			<i>Kreditu-erakundeekiko zorrak</i>	132.176	178.670
AKTIBO KORRONTEA	3.552.557	4.350.753	PASIBO KORRONTEA	2.341.698	2.992.530
Izakinak	1.712.343	1.864.855	Epe Laburreko Zorrak	1.303.664	1.296.825
Zordun Komertzialak eta Kobratzeko Bestelako Kontuak	1.755.004	2.352.654	<i>Kreditu-erakundeekiko zorrak</i>	1.303.664	1.296.825
<i>Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateengatik</i>	1.754.723	2.352.654	Hartzekodun Komertzialak eta Ordaintzeko Bestelako Kontuak	1.038.034	1.695.705
<i>Administrazio publikoekiko bestelako kredituak</i>	281	0	<i>Hornitzaileak</i>	928.884	1.588.142
Eskudirua eta Bestelako Aktibo Likido Baliokideak	85.210	133.244	<i>Hainbat hartzekodun</i>	6.318	88
<i>Diruzaintza</i>	85.210	133.244	<i>Administrazio publikoekiko bestelako zorrak</i>	102.832	107.475
AKTIBOIA GUZTIRA	4.570.024	5.393.252	ONDARE GARBIA eta PASIBOIA GUZTIRA	4.570.024	5.393.252

"SARRIKO SA"
GALDU-IRABAZIEN KONTUA (Euroak, Datuak: 201X-12-31)

	2011	2010
A) ERAGI KETA-JARRAI TUAK		
1.- Negozio-zifraren zenbateko garbia	5.757.814	7.616.345
4.- Hornikuntzak	(4.560.961)	(6.231.302)
6.- Pertsonal gastuak	(925.521)	(949.343)
7.- Ustiapeneko bestelako gastuak	(317.061)	(337.701)
8.- Ibilgetuaren amortizazioa	(59.914)	(61.279)
11.- Ibilgetuaren narriadura eta besterentzearen emaitza	(827)	3.284
= USTIAPENENKO EMAITZA	(106.470)	40.004
12.- Sarrera finantzarioak	11.138	15.975
13.- Gastu finantzarioak	(70.328)	(53.255)
= EMAITZA FINANTZARIOA	(59.190)	(37.280)
= ZERGA AURREKO EMAITZA	(165.660)	2.724
17.- Mozkinen gaineko zeragk	39.758	(654)
B) ETENDAKO ERAGI KETA		
= EKITALDIKO EMAITZA	(125.902)	2.070

ESKATZEN DA:

1.- Ekitaldi bietarako Maniobra Fondoa kalkulatzeko. Lortutako balioen esanahia, eta aldaketarena, azal ezazu.

2.- Ekitaldi bietarako Epe Laburreko Kaudimena eta Likidezia kalkulatzeko. Esanahia azal ezazu eta aldaketaren zergaitiak justifika itzazu.

3.- Ekitaldi bietarako Berme-ratioa (Kaudimen Osoaren ratioa) kalkulatzeko. Esanahia azal ezazu eta aldaketaren zergaitiak justifikatu.

4.- Ekitaldi bietarako Errentagarritasun Ekonomikoa kalkulatzeko (*itxierako aktibo garbia guztiraren datua ekitaldiko batazbesteko aktibo garbia guztiraren datuarekin bat datorrela suposa ezazu*). Esanahia azal ezazu eta aldaketaren zergaitiak justifikatu.

4. GALDERA

Iberriako greba amaitzeaz dago: sindikatu gehienek akordioa sinatu dute:

2013-03-13

Espainiako Iberia aire konpainiako langileen asanbladek eta sindikatu gehienek zuzendaritza organoek, gatazkan bitarteko ofizialak egindako proposamena onartu dute, bi asteko iraupena izan duen greba bertan behera geratuz.

Martxoaren 4tik eta 8ra bitartean soilik, Iberiak ia 1.300 hegaldi ezeztatu zituen. Protestaren deialdia, enpresaren onbideratze-planean aurreikusitako 3.800 langileren kaleratzearen aurka eta gainerako langileen soldata murrizketaren aurka egiteko izan zen.

Aurreko albistea arretaz irakurri ondoren, galdera hauek erantzun itzazu:

- 1) Gatazka kolektibo bat zer den laburki azal ezazu eta gatazka ebazteko zein neurri hartu ahal diren
- 2) Lan baldintzekin erlazionatutako zein gai edo zein puntu barneratu ahal dira hitzarmen kolektibo batean?
- 3) Albistearekin erlazioan, zein lan-gatazkari buruz ari da? Zergatik sortu da gatazka hori? Zein neurri hartu da gatazka ebazteko? Nortzuk hartu dute parte gatazkan? Akordio batera iritsi al dira?

5. GALDERA

AIRBUSek, EADS partzuergo aeronautiko europarraren fabrikatzaileak, bere modelo berria (*Airbus A380*) fabrikatzeko 262 agindu irmo jaso ditu orain arte. Modelo hori munduko hegazkin komertzial handiena da, eta 525 pertsona garraiatzeko lekua du (ohi bezala, hiru klasetan antolatuta). Hasiara batean konpainiak 8.400 milioi dolarreko garapen gastuak aurreikusi zituen (kostu finkotzat jo zitezkeenak). Alabaina, diseinuari zegozkion zenbait arazo tekniko eta lehen entregak egiterakoan izandako atzerapenak



zirela eta, Airbusek teknika hobekak garatzeko eta atzerapenen ondoriozko kalte-ordainak hitzartzeko baliabide gehiago inbertitu behar izan zituen; hala, zenbatekoa 18.600 milioi dolarrekoa izatera igaro zen. Arazo horiek ikusita, zuzendaritzak

errentagarritasun ataria igo egin behar izan zuen, 250 hegazkin baino gutxiagotik 420 hegazkinera.

ZERA ESKATZEN DA:

Azken zenbateko hauek mantenduko direla onarturik, hegazkin bakoitzaren salmenta prezioa 390 milioi euro dela suposatuz eta errentagarritasun atariaren formula erabiliz, hegazkin bakoitzaren batez besteko kostu aldakorra kalkula ezazu.

EKONOMIA

1. GALDERA

Azken hilabete hauetako egunkarietako gai nagusienetako bat Espainiako erregaien prezioa eta banaketa izan da. Horren adibide dira, *El País* egunkariko bi albistetatik ateratako testu hauek:

A) 2013-02-22ko albistea.

Industria Ministerioak prezioak zehaztea debekatu die gasolina zerbitzuguneei

Gobernuak erregaien sektorean lehiakortasuna sustatzeko neurriak hartu ditu. Merkataritza guneetan eta industrialdeetan gasolina zerbitzuguneak irekitzeko izapideak murriztu ditu

Abisua lege bihurtu da. Industria ministro José Manuel Soriak enpresa marjinak moderatzeko eta prezioak geldiarazten laguntzeko eskaera egin zien Espainiako gasolina eta gasolio banatzaile nagusiei (Repsol, Cepsa eta BP). Izan ere, udan, erregai horien prezioak inoiz baino altuagoak izan ziren. [...] Txostenak hiru handizkari nagusiei lotutako gasolina zerbitzuguneen artean barneko lehiarik ez dagoela adierazten zuen, findegia Espainian duten bakarrak izatearen abantaila aprobetxatzen baitute. Lehiaren Batzorde Nazionalaren (CNC) arabera, erregaien % 70 Repsolek, Cepsak eta Bpk hornitutako gasolina zerbitzuguneetan saltzen da. Gehienak enpresari independenteek kudeatzen badituzte ere, zehatz-mehatz jarraitzen diete petrolio konpainiek egindako gomendioei. Orain, Industria Ministerioak, CNCk aholkatu bezala, prezioak zehaztea debekatu du eta hornikuntza eskusiboko kontratuei urtebeteko epea ezarri die (hiru urtera arte luza daiteke), beste konpainia batzuek baldintza hobeak eskaintzeko aukera izan dezaten.

CNCk konpainia berriei merkatuan sartzeko jartzen zaizkien oztupoak ere nabarmendu zituen. Gomendio horiek kontuan hartuta, Industria Ministerioak bidea ireki du: merkataritza guneetan gasolina zerbitzuguneak irekitzeko erraztasunak emango ditu. [...] Industria Ministerioak banatzaile handien hedapena mugatuko du dagoeneko hartuta dituzten probintzietan. [...] Petrolio konpainiak (eta prezioak) arinduko dituen beste neurri bat ezarri du, EBrekin hartutako ingurumen konpromisoaren aurkakoa bada ere: nahitaez bioerregaiak kontsumitzeko helburua % 6,5etik % 4,1era murriztu da 2013rako eta ondorengo urteetarako. Bioerregaien ekoizleek neurri hori “atzerakoa” eta “neurrigabea” dela adierazi dute. [...] CNCren arabera, hiru konpainia nagusiek CLH konpainian (petrolio hodian eta erregai biltegi gehienek kudeatzailea) duten eraginak zaildu egiten du beste banatzaile batzuk merkatuan sartzea.

B) 2013-03-07ko albistea.

CNEk espedientea ireki die petrolio konpainiei astelehenetako erregaien prezioa jaisteagatik

Energiaren Batzorde Nazionalak gasolina Europar Batasunaren estatistika buletinerako prezio laginak hartzen diren egunean soilik merkatzen duten konpainiak identifikatu nahi ditu

Espainiako erregaien prezioek astelehenetan izaten duten ezohiko beherakada dela eta, Energiaren Batzorde Nazionalak (CNE) espedientea ireki die petrolio konpainiei “astelehen efektua” izeneko gertakariagatik. [...] Aztertutako gainerako urteetan ez bezala, 2012ko astelehenen % 70 baino gehiagotan prezioak jaitsi egin ziren igandekoekin alderatuta (hiru zentimo baino gehiago). Gainera, astearteetan prezioa igo egiten zen, gehienetan asteleheneko beherakada baino lehenagoko prezioak gaituz. [...] Horrez gain, 2012ko azken hiruhilekoan, Gobernuak sektoreko lehiakortasuna hobetzeko neurriak hartuko zituela adierazi ondoren, “astelehen efektua” areagotu egin zen, bai 95eko gasolinari bai A gasolioari zegokionez. [...] Lehiaren Batzorde Nazionalak ere (CNC), bertako presidente Joaquín García Bernaldo de Quirósen bitartez, joera hori ikertzen ari zela jakinarazi zuen Kongresuan. Horrez gain, presidentek merkatuan lehiakortasun eraginkorra zailtzen duten hainbat zurruntasun daudela adierazi zuen. [...]

Ustezko iruzurrak Espainiako enpresa nagusiei eragiten die: Repsol (bere menpeko markak, Campsa eta Petronor, barne), Cepsa (Abu Dabhi emirerriko IPIC konpainiaren jabetzakoa) eta BP. Hiru enpresek merkatuaren % 73 hartzen dute, beraz, ez dago lehia handirik. Egoera horrela dago ia sektorearen liberalizazioaren hasieratik, alegia, laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik.

Albisteak arretaz irakurri ondoren galdera hauek erantzun itzazu:

- 1) Zer dira ekonomian merkatuan sartzeko hesiak (oztopoak) eta kartelak?
- 2) Albistearen arabera, zein merkatu mota da nagusia Espainian erregaien sektorean? Gertatzen ari denak Kartel-aren definizioarekin egiten al du bat?
- 3) Zein da Industria Ministerioak jarraitu nahi duen politika? Zertarako?

2. GALDERA

Gipuzkoako egunkari batean argitaratutako Agentzia EFEren ondorengo albistea irakur ezazu

Euskadiko zor publikoa BPGd-ren % 7,9koa da; Funcasen arabera, Espainiako baxuena

EFE - Ostirala, 2012ko martxoaren 9a

2011. urtearen amaieran, Euskadik bere barne produktu gordinaren (BPGd) ehuneko 7,9ko zor publikoa zuen, Espainiako baxuena, Fundación de las Cajas de Ahorros (Funcas) fundazioaren azken azterketaren arabera. Aurreko urtearen amaieran, Espainiako autonomien zor publikoaren portzentajea (BPGd oinarritzat hartuta), ehuneko 12,6koa zen, alegia, 2005. urte amaierakoaren bikoitza (ehuneko 6,3).

Zor publikoak kreditu zorpetze osoarekin (eskatutako kreditu guztiak) alderatuta hartzen duen portzentajeari dagokionez, 2011n Euskadin ehuneko 6,4koa izan zen, Espainiako batezbestekoa baino baxuagoa (ehuneko 7,94).

"Zor publikoa/banku gordailuak" ratioa (zor publikoak gordailu guztiakin alderatuta duen pisua) ehuneko 7,32koa izan zen Euskadin (Espainiako bigarren baxuena, Madril en atzetik). Espainiako batezbestekoa ehuneko 12,29koa izan zen.

Ondorengo galderak erantzun itzazu:

- 1) Zer dira zor publikoa eta banku gordailuak?
- 2) Zein erlazio du zor publikoak defizit publikoarekin?
- 3) Artikuluan Euskadi eta Espainiako gainerako lurraldeak zor publikoaren terminoetan konparatzen dira. Zure ustez Euskadi Espainiako gainerako lurraldeak baino hobeto ala okerrago dago? Zein mailatan da egokia zor publiko gehiago ala gutxiago egotea? Zure erantzuna arrazoindu ezazu.